

ELAK eitbri buruz salatutako datuek iaz okerrera egin zuten
“Posizio sindikal eta sozial alternatiboak baztertuta daude oraindik”

Ondoko taulan agertzen da 2015ean zenbat bider elkarrizketatu zuten alderdi politiko, instituzio, patronal edo sindikatu bakoitza Radio Euskadiko *Boulevard* saioan:

Radio Euskadiko Boulevard saioan egindako elkarrizketak (2015)

Alderdi politikoak

IU	4
Geroa Bai	3
UPyD	3
PSE-PSOE	24
PP	24
EH Bildu	28
EAJ	31
Podemos	18
UPN	2
Ciudadanos	2
GUZTIRA	139

**Eusko Jaurlaritzako
beste karguak**

Zearreta (F.Publikoa)	1
Jonan Fernandez	3
Miren Dorronsoro (Osakidetza)	2
Pilar Cancedo (Lehiaren Agintaritzza)	1
Aintzane Ecenarro (Gogoa)	2
Maite Solabarria (Ertzaintza)	1
Gerbasio Gabirondo (Ertzaintza)	1
Bittor Oroz (Nekazaritza)	1
Arevalo (L.H.)	1
GUZTIRA	13

Foru Aldundiak

Araba	2
Bizkaia	3
Gipuzkoa	3
Guztira	8

Alkateak

Gasteiz	1
Iruñea	1
Donostia	1
Bilbo	2
Guztira	5

Sindikatuak

ELA	3
CCOO	0
LAB	1
UGT	2
Guztira	6

**Jaurlaritzako Lehendakaria
eta sailburuak**

Urkullu Lehendakaria	2
Cristina Uriarte	3
Arantxa Tapia	3
Ana Oregi	1
Estefania Beltran de Heredia	2
Josu Erkoreka	2
Jon Darpon	4
Juan Mari Aburto	1
Angel Toña	3
GUZTIRA	21

Nafarroako Gobernua 5

**Eusko Legebiltzarreko
Lehendakaria** 1

**Hautagai politikoak,
hauteskunde aurreko aldian**

Javier de Andres	2
J.C.Izagirre	3
Javier Maroto	1
Martin Garitano	1
Ibon Areso	1
GUZTIRA	8

Enpresa mundua

Patronalak	5
Beste batzuk	9
GUZTIRA	14

EITBko zuzendaritzak emandako datuak

Aipatutako datuok goizeko 9etako elkarrizketei dagozkie; ez daukagu daturik EITBk saio berean patronalaren iritzi, txosten, prentsaurreko eta posizio publikoei eskaintzen dien tarteari buruz. Behar bada patronalari eta gobernuari ematen zaien pribilegiozko tratua zerikusia du agintari politikoen ustearekin, alegia, eurak direla “errealitatean bizi diren” bakarrik.

EITBK EZ DU LEGEA BETETZEN

ELAk gogora arazi nahi du joan den martxoaren 1ean Arartekoarekin bilera bat izan zuela salatzeke EITBko zuzendaritzak legea ez duela betetzen. Gure ustez, *Boulevard* saioko datuak EITBko gainerako programaziokoaren antzekoak dira, batik bat informatiboak dagokienez, zeinetan gobernuaren eta patronalaren aldeko joera begibistakoa den.

Zertaz ari gara esaten dugunean legea ez dela betetzen? Zehazki, “Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 21. artikulua, “irrapide eta zuzenketa” eskubideei buruzkoak; artikulua honen 1. puntuak honakoa dio: “Gizarte eta politika-talde ordezkagarriek, Lege honen xede diren herri-adierazpideak erabiltzeko eskubidea izango dute. Eskubide hau egiteratzeko, Arduratze-Batzordeak, Artezkari Nagusiarekin bat eta dagozkion aginteak egiteratuz, erizpide soilak ezarriko ditu, hori erabakitzeko, aipatutako taldeek bateango Erakundeetan, Kondaira Lurraldeetan eta Elkarte Autonomiaduneko Udaletxeetan daukaten ordezkotza, eta beharrezko jo ditzan sindikaritzea edo uqazaba-ordezkatzeazko, edo gizarte eta kultura-interesezko beste ezein erizpide kontutan izanik”. “Irrapide-eskubidea esangura gutxiagoko politika, gizarte eta kultura-taldeentzako ere bermatuko da”.

Urteak igaro diren arren, EITBk ez ditu legea garatzeko “erizpide soil” horiek finkatu. Arau gabezia horrek indefentsio egoera larrian jartzen gaitu eremu alternatiboan dihardugun organizazioei. Legeak eskatzen du irizpide horiek objektiboak izatea eta organizazioen ordezkaritza maila errespetatzea, ordezkaritza txikiagoa duten erakundeak ere aintzat hartuko direla bermatuz.

Alabaina, irizpide objektiborik finkatu ez izanak ez du esan nahi erakundearen zuzendaritzak bere irizpideak aplikatzen ez dituenik. Izan ere, arau gabezia horrek modu arbitrarioan jokatzeko aukera ematen baitio, informazioaren tratamenduan lehentasuna ematen dielarik Jaurlaritzaren propagandari, gobernuaren aldeko indar politikoen presentziari eta mundu ekonomikoaren interesei.

ELAk lanean jarraituko du EITBko printzipioak aintzat har daitezen; gure zergekin ordaintzen ditugun komunikabide publikoetan inpartzialtasuna errespetatzean, eta mundu alternatiboko diskurtso sindikal eta sozialei leku bat berma dakien. Gure herrian EITBk islatzen dituenak baino askoz adierazpide aberatsagoak ditu.

Bilbo, 2016ko martxoaren 22a